




## LEHEN HEZKUNTZAKO 2. zikloa: IPUIN SARITUA

### SAGAR BIZIA. Amara Markos Cidoncha

Duela urte asko Kilimanjaroko magalean sagar bat bizi zen. Oso gorria eta biribila zen. Udaberria heldu zen eta eskolara joan behar zuen. Beldurra zuen jende asko joaten zelako. Egun batean ume baten motxilan sartu zen. Eskolara heldu zen eta motxilaren barrutik dena entzun zuen. Gero patioko orduan umeak sagarra hartu eta hozka egitera zihoanean sagarrak hau esan zuen:

- Ez jan mesedez!– Umea harrituta geratu zen eta esan zuen:
- Nola deitzen zara?
- Ni Bizi naiz eta zu?



– Ni Ton deitzen naiz– erantzun zuen umeak.  
Lagun minak egin ziren eta elkarrekin joaten ziren beti leku guztietara.

Baina egun batean Bizi gaixotzen hasi zen.

– Zer gertatzen zaizu?– galdetu zion Tonek.

– Bihotza ahultzen ari zait– erantzun zion Bizik.

Toni bururatu zitzaion:

– Nire baratzera joango gara eta hor landatuko zaitut.

Horrela egin zuen eta, egunak joan egunak etorri, Bizi sagarrondo bihurtu zen. Sagarrondoa sagarrez bete zen, sagar horiek hitz egiten zekiten.

Egia ala gezurra, begi bien artean sudurra.